



elkarkidetza[®]
pentsioak

Enpleguko BGAE
EPSV de Empleo

2018



Zure erretirorantz nabigatu

PLANIFIKATU ZURE ETORKIZUNA

EUSKADIKO SEKTORE PUBLIKOKO PENTSIONEN SISTEMA OSAGARRIA:

**TOKI ETA FORU INSTITUZIOAK ETA BESTE INSTITUZIO, ORGANISMO
AUTONOMO ETA SOZIEATE PUBLIKOAK**



ZER DA ELKARKIDETZA?

Elkarkidetza, Toki eta Foru instituzioetan eta beste Institutuzio, organismo autonomo eta Sozietate Publikoetan lan egiten duten langileen Gizarte Segurantzza Publikoaren pentsioak osatzeko eta, horrela, hileroko pentsio baten bidez bitzta maila duinaz eta seguruz gozatzeko xedez eraturako, irabazi asmorik gabeko enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspen Erakundea (BGAE) da.

Negoiazio kolektiboaren barruan ezarritako gizarte aurreikuspen sistema da, bertako kide direnen taldeak, sindikatuek eta Administrazioak sustatua eta kontrolatua.


1986an jarri zen martxan, eta bertako kide diren taldeen beharretara egokitzuz eta garatuz joan da. Sistemen helburu nagusia, erretiratzearen unean estaldura eskaintzea da, eta elkartasun elementu garrantzitsua sartzan du ezintasun iraunkorra eta heriotza estali ahal izateko.

Kudeaketa, pentsioen alorrean esperientzia handia duen profesional kalifikatu talde batek egiten du, kaudimen eta epe luzeko jasagarritasun irizpideetan oinarrituz.

ZENBATEKOA DA ETA NOLA EGITEN DA EKARPENA?

Elkarkidetza enplegu sistema bat da eta ekarpenen zenbatekoa finkatzen da Institutuzioan eragina duten da-gozkien hitzarmenek edo akordio kolektiboek xedatutakoaren baitan eta gaiari buruz Gobernu Batzordeak hartzen dituen erabakien bitartez.

Horiek guztiek ezaugarri hauek dituzte.



- Oro har, ekarpenak partekatu egiten dituzte langileek eta beraien Instituzioek eta zuzenean nominatik kentzen dira.
- Bazkideek borondatezko ekarpena egin dezakete, banakoa eta hilerokoa, araudian ezarritako egoerak ematen direnean eta zenbateko mugatuarekin.

Ekarpenen %90 aurrezkiaren eratzeko izaten da eta gainerako %10 kapital gehigarria eratzeko, bazkidea erretiratu baino lehen ezgaitzen edo hiltzen bada ere.

Bazkide babeslearen eta bazkide osoaren kuota ordainketak amaituko dira, bazkide osoak Gizarte Segurantzako sistema publikoan edo antzekoan erretiratzeko ezarritako adina betetzen duenean.

Ekarpenak hilero ordainduko dira eta ekainean eta abenduan hileroko ekarpenen kopuru bereko ekarpen gehigarria egingo da.

NOIZ HASIKO NAIZ EKARPENAK EGITEN?

Zenbat eta lehenago hobe. Epe luze batean ekarpen jarraituak egiteak, eragin zuzena dauka kapitalaren edo aurrezkiaren sorkuntzan.

Egin beharko dugun ahalegina txikiagoa izango da, ez bakarrik ekarpenak egiteko urte gehiago izango ditugulako, baizik eta urte horietan lortutako errentagarritasunak ere aurrezki handiagoa sortuko duelako.

ZER EGIN BEHAR DUT ALTA ESKATZEKO?

Sarrera Eskaera bete behar da. Orri hori gure ordezkari bulegoetan, zure Instituzioko pertsonal departamentuan edo Elkarkidetzaren webgunean daukazu. Gainera, eskaera horri NANren kopia ere erantsi behar zaio.

GARRANTZITSUA AL DA ELKARKIDETZAN ALTA ESKATZEA, INSTITUZIOAN LANEAN HASI NAIZEN UNE BEREAN?

Bai, Instituzio baten sarrera Elkarkidetzan onartu eta hilabeteko epean alta eskatzen duten langileei eta lanean hasi berri diren langileei bi hilabeteko epean sartzan badira, ez zaie bi urteko gabealdia aplikatzen.

Aipatu epeak pasa eta gero eskatzen bada alta Elkarkidetzan, ezintasun iraunkor eta heriotzaren prestazioen estaldura osorik aitortuko da alta izan eta bi urte igaro ondoren. Bi urteko epe horretan, istripuen ondorioz gertatutako prestazioak soilik estaltzen dira.

NORK EGIN DITZAKE BORONDATEZKO EKARPENAK?

Erretiratzean Elkarkidetzan 40 urteko ekarpenak egitea lortuko ez duten bazkideek edo ekarpen-oinarria haien soldata baino txikiagoa dutenek, banako borondatezko ekarpena eta hilerokoa eska dezakete, 2018rako 4.092 euroko urteko kopurua gainditzen ez badu. Gehieneko kopurua KPlaren arabera egunergarria da. Lurralde bakoitzeko bulegoan bete behar da eskaera inprimakia.

Borondatezko ekarpena egiten hasi eta bi urteko epean, ez da izango kapital gehigarriaren eskubiderik ezintasuna edo heriotza gaixotasunagatik gertatzen den kasuetan.

ZER GERTATZEN DA INSTITUZIOAREKIN DUDAN LAN-HARREMANA AMAITZEN BADA?

Egindako aurrezkia, Elkarkidetzan zure izenean mantentzen den Eskubide Ekonomikoa da. Zure ekarpenak egiten jarraitzeko aukera edo hauek eteteko izango duzu. Lehenengo kasuan Eskubide Ekonomikoa etorkizunean egindako ekarpenen eta errentagarritasunaren ondorioz haziko da. Bigarren kasuan aldiz, Eskubide Ekonomikoa soilik etorkizunean lortutako errentagarritasunaren ondorioz haziko da.

Egindako aukera edozein izanda ere, Eskubide Ekonomikoa prestazio bihurtuko da behin kontingentzia gertatu eta eskaera egin ondoren.

Azkenik, Eskubide Ekonomikoa enpleguko beste BGAE batetara alda daiteke.

BORONDATEZ EKARPENAK EZ EGITEA ERABAKI AHAL DEZAKET ETA GERO BERRIRO EKARPENAK EGITEN HASI?

Elkarkidetzan ekarpenak egitea borondatezkoa da eta edozein momentuan erabaki zenezake ekarpenik ez egitea. Erabaki horrek ordea, ondorio hauek izango ditu:

- Instituzioak ez du ekarpenik egingo.
- Ezgaitasun iraunkor eta heriotza kasuetan kapital gehigarria galtzen da.
- Aurrezkoa soilik etorkizunean lortutako errentagarritasunaren arabera haziko da.

Era berean, Instituzioarekin lan-harremana mantenduz, borondatez baja eskatu duen bazkideak jarduneko bazkide oso izateko eskaera egin ahal izango du edozein unetan.

Urtean zehar berriz bazkide gisa sartzeko egiten duen lehen eskaera bada, alta horrek, eskaera aurkeztu eta hurrengo hilaren batetik izango du eragina. Kontrako kasuan, alta horrek, eskaera aurkeztu eta hurrengo urteko urtarrilaren batetik aurrera izango du eragina.

Urte bat baino gehiago ekarpenik egin gabe egonez gero, alta hartu eta bi urteko epean gabealdia aplikatuko da heriotza eta elbarritasun kasuetan kapital gehigarriaren eskubidea izateko, istripuen ondorioz sortutako prestazioen salbuespenarekin.

ZER NOLAKO ERAGINA DUTE GASTUEK, LORTUTAKO ERRENTAGARRITASUNEAN?

Gastuek, lortutako errentagarritasuna murrizten dute eta zuzenean eragiten dute kapitalaren sorkuntzan, hauen ondorioz azken kopurua txikiagoa izanik. Beste modu batetara esango genuke gastu txikiagoak izanik, kapitalari eta ekarpenei aplikatzen zaien errentagarritasuna handiagoa dela eta horrexegatik lortuko den azken kapitalaren eta pentsioen zenbatekoa handiagoa izango dela.

Garrantzitsua da jakitea, gastu guztiak kendu ondoren lortutako errentagarritasuna. Elkarkidetzak gastuak kendu ondoren adierazten du errentagarritasuna.

EKARPEN HAUEK EGITEAGATIK ZERGA-ARINKETARIK BADAUKAGU?

Bai. Norberak egiten duen ekarpena, PFEZ aitordena egitean, oinarri zergagarrian kenkari gisa sartzen da. Instituzioaren ekarpena zergei dagokienean, neutroa da.

ZER NOLAKO PENTISIOA JASOKO DUT ERRETIRATZERAKOAN?

Elkarkidetza pentsio osagarrien sistema da, enplegukoa eta banakako kapitalizazio sistema erabiltzen du. Egia esan, aurrezki mota bat da; bertan langileak eta Instituzioak egiten dituzte ekarpenak, horiek pilatuz joaten dira eta errentagarritasuna sortzen dute. Ekarpeneren baturei eta inbertsioen irabaziei esker, banako kapitala edo aurrezkiak eratzen da eta horrek ziurtatzen du bizi osorako erretiroko pentsioa jasoko dela.

Hemendik aurrera bi efektu konbinatzen dira. Alde batetik pentsioa ordaintzen denez, pilatutako kapitala jaisten da eta bestetik sortzen den errentagarritasuna kontsumitu gabeko kapitalari gehitzen zaio, horrela kapitalaren jaitsiera motelduz.

BESTE PRESTAZIORIK AITORTZEN AL DU ELKARKIDETZAK?

Erretiro pentsioaz gain, ezgaitasun iraunkorrak, alarguntasunak, zuztasunak eta langabezia ere aitortzen dira.

Ezintasun iraunkor edo heriotzagatik erretiro adinera iristen ez den bazkideak ere pentsio duina sortzeko aukera izan dezan, pilatutako aurrezkiak nahikoa ez delako, aurrezki honi gehituko zaion kapital gehigarria ezarri du Elkarkidetzako sistemak.

NOLA KALKULATZEN DA KAPITAL GEHIGARRIA?

Kapital gehigarriaren zenbatekoa Instituzioak eta kotizatzen ari den bazkideak Gizarte Segurantzaren sistema publikoan edo antzekoan erretiratzeko ezarritako adina lortu arte egingo zituzten ekarpenak izango dira; oinarritzat azken 12 hilabeteetan egindako ekarpenen batez bestekoa hartzen da eta 1,2 koefizientearekin hobetzen da.

Kapital gehigarria = Azken urteko ekarpenak * (Gizarte Segurantzaren edo antzekoan erretirorako ezarritako adina – adina) * 1,2

ZER PENTSIO JASOKO NUKE ERRETIRO ADINA BAINO LEHEN EZINTASUN IRAUNKORRA EDO HERIOTZA GERTATUZ GERO?

Garrantzitsua da ekarpenak egiten ari zaren ala ez jakitea:

- Ekarpenak egiten ari bazara.

Biziarteko pentsioa, aurrezkoa eta ezintasun iraunkorra edo heriotza unean kapital gehigarria oinarri hartuta kalkulatu, ordura arte ekarpenak egiten jardunez gero.

Aitortutako ezintasun iraunkor prestazioek ez dute Elkarkidetzan ezintasun iraunkor prestaziorik sortuko.

- Ekarpenak egiten ari ez bazara.

Biziarteko pentsioa, aurrezkoa soilik oinarri hartuta kalkulatu.

ELKARKIDETZAREN BIZIARTEKO PENTSIONEN EZAUGARRIAK ETA ONURADUNAK

Prestazioen kobruaren hurrenkera horrela izango da: lehenengo bazkidea, bigarren alarguntasuna jasoko duen onuraduna, hirugarren seme-alabak eta azkenik oinordekoak.

Erretiratuaren edo ezinduaren alarguntasuna

Alarguntasuna jasoko duen onuradunak, pentsioaren %100 izango du.

Bazkide osoaren erretiroa, ezintasun iraunkorra eta alarguntasuna

Erretiratu edo ezindua eta hauen alarguntasun onuraduna, erretiratuak edo ezinduak 90 urte bete baino lehen hilko balira, edo bazkide osoaren alarguntasunaren onuraduna 90 urte bete baino lehen hilko balitz; bazkide osoaren seme-alabek edo horrelakorik ezean, oinordekoek, erretiratuak edo ezinduak edo bazkide osoaren alargunak 90 urteak bete arteko errenta guztiak jasoko dituzte.

Errentak jasotzea edo ordainketa bakarra jasotzea aukeratu ahal izango da; ordainketa bakarra aukeratuz gero, kobratzeko dauden errenten zenbatekoa izango da, errenta kalkulatzekoan erabilitako interes teknikoaren arabera eguneratua.

Bazkide osoaren zurtasuna

Eskubide ekonomikoa berdin banatzen da seme-alaba guztien artean.

- 25 urtetik beherakoentzako: errenta finantzarioa edo behin-behinekoa
- 25 urtetik gorakoentzako: kapitala

Kapitalizatzeko aukera

Prestazioak pentsio moduan kobratzeko sistema bat ezarri da, hain zuzen ere gure araudian ezarritako gutxieneko pentsioaren zenbatekoa ordaindu ahal izateko, 2018rako 103 euro, KPlaren arabera eguneragarriak. Helburu hau lortutakoan, aurrezkiaren zati bat kapitalizatu ahal izango da % 25eko mugarekin, bazkide osoaren erretiro, ezintasun iraunkor eta alarguntasun prestazioetan.

NOIZ ETA NOLA JASOTZEN DIRA PENTSIONAK?

Prestazioa kobratzeko eskubidea izango da gertaera eragilea jazotzean, kausatzaileak lan-harremana eten duenean, Erakundearekiko betebeharreran eguneratua dagoenean, Prestazioen Erregelamenduan eskatzen diren dokumentuak aurkezten dituztenean, Erakundeak duen eredia bete eta eskaera egiten duenean.

Pentsioak hileroko jasotzen dira eta ekainean eta abenduan kopuru bereko hileroko gehigarri bat jasotzen da.

NOLA TRIBUTATZEN DUTE PENTSIOEK?

Pentsioak laneko etekin gisa hartu behar dira PFEZ aitortpena egiteko orduan.

LABURBILDUZ, ZEINTZUK DIRA ELKARKIDETZAREN FUNTSEZKO EZAUGARRIAK?

- Instituzioaren eta langilearen artean partekatutako ekarpenek, emaitzak bikoizten dituzte.
- Lanbide-karrera luzean egindako ekarpenek eta lortutako errentagarritasun egokiek, pentsio proposak lortzea ahalbidetzen dute.
- Norberak, hileroko borondatezko ekarpenak egin ditzake.
- Erretiro pentsioaz gain ezintasun iraunkor, alarguntasun, zurtasun eta langabezia prestazioak ere badaude.
- Erretiro adinera iritsi baino lehen ezintasun iraunkorra edo heriotza gertatuz gero, kapital gehigarria sortzen da.
- Gizarte aurreikuspenean espezializatutako sistema da, eskarmentu handikoa eta errentagarria (datuak webguneko gune pribatuan ikus daitezke), sektoreko batez bestekoak baino handiagoak diren urteroko etekinak dituena. Ez dira ahaztu behar gizartearekiko arduratsuak diren inbertsioak eta Euskadin egiten den inbertsioa.
- Kudeaketa gastuak murriztzak dira. Horrexegatik pentsioek kopuru handiagoa lortzen dute.
- Kaudimen kontsolidatua, 1986tik euskal sektore publikoko langileei pentsioak ordaintzen zaizkie.
- Irabazi asmorik gabea, irabazi guztiak zuzenean Elkarkidetzako bazkide taldeari itzultzen zaizkio.
- Ekarpent pertsonalengatik zerga-arintzea.
- Langileen eta Administrazioaren ordezkariak bultzatua eta kontrolatua

**ELKARKIDETZA EREDU AURRERATU
ETA ARRAKASTATSUEKIN LERROKATUA DAGO**

**GIZARTE AURREIKUSPEN OSAGARRIA
BEHARREZKOA ETA EZINBESTEKOA DA ZURE
ETA ZURE FAMILIAREN ETORKIZUNERAKO**



elkarkidetza[®]
pentsioak

Enpleguko BGAE
EPSV de Empleo



Elkarkidetza Euskalit aitortpena jaso duen lehen euskal BGAE da, Kudeaketa aurreratuaren ereduari dagokionez: ZILARREZKO A.



KUDEAKETA AURRERATUARI
ZILARREZKO AINTZATESPENA
RECONOCIMIENTO DE PLATA
A LA GESTIÓN AVANZADA



www.elkarkidetza.eus

Fax: 94 479 10 22

ARABA/ÁLAVA

Ramón y Cajal, 7-9
01007 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 14 11 41

araba@elkarkidetza.eus

BIZKAIA

Gardoqui, 2
48008 Bilbao
Tel.: 94 415 55 78

bizkaia@elkarkidetza.eus

GIPUZKOA

Mendeurren Plaza, 6
20006 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 43 02 56

gipuzkoa@elkarkidetza.eus